

Kamioien zirkulazio-murrizketak

2022rako frantziar errepideetan

Frantziar errepide sarean **erabat debekatuta** dago **urte osoan** ibiltzea:

Larunbatean gaueko 22:00etatik igandeko gaueko 22:00etara

Jai-bezperan gaueko 22:00etatik jai-eguneko gaueko 22:00etara

Zirkulatzeko beste debeku osagarriak ezartzen dira **Rhône-Alpes** inguruko errepide batzutan, **neguan** (bost larunbatetan), eta frantziar **errepide sare osoari udan** (zazpi larunbatetan gehienez).

Rhône-Alpeetako Sarearen honako bideak daude debekatuta neguan

- Bourg-en-Bresse/Chamonix
- Lyon/Kanbéry/Tarentaise/Maurienne
- Lyon/Grenoble/Briançon
- Bellegarde eta Saint Julien Genevoisen/Annecy/Albertville
- Sallanches/Albertville
- Chambéry/Annecy/Scientrier
- Grenoble/Cambéry

Arauaren **salbuespenak**

Baldintza jakin batzuetan, badira salbuespen iraunkorrak, baimen berezirik gabe, honako hauek garraiatzeko:

- Animalia biziak, gai edo produktu galkorrak
- Mamia edo erremolatxa kanpaina-aldian
- Nekazaritza-produktuak, uztaldian zehar (nekazaritza-ustiategietan landatutako produktuak, zerealak eta lastoa barne)
- Prentsa
- Grammopteria industriako aparatuak
- Kamioian garraiatutako aireko pleita
- Piroteknia-gaiak
- Hidrokarburo gaseoso likidotuak edo baimendutako kirol-lehiaketatan erbiltzeko petrolio-produktuak
- Osasun gune publiko edo pribatuen funtzionamendurako beharrezkoak diren gas medikoak, ospitaleko hondakinak, arropa eta salgaiak.
- Ekonomia, kirol, kultura, hezkuntza edo politika arloko ekitaldietan erabiliko diren instalazioak muntatzeko edo jasotzeko behar direnak
- Hiriguneetan bulego edota fabriketan etxe-aldatzea edo mudantzak
- Kaleko salmenta, azoka edo merkatuetako produktuen salmenta

Debeku nagusiak eskualdeka

Garraioan dabiltzan 7,5 tonatik gorako ibilgailuek debekatuta dute zirkulazioa honako bideetan:

Ekialdeko aldea

- N59/N159/D1059 Lunéville (54) eta Sélestat (67) artean
- N66/D1066 Reimremont (88) eta Cernay (68) artean

Iparraldea

- A1/N356/A22 Daches-Thumesnil (59) eta Aalbeke (BE) artean

Hegoaldea

- A557 eta Arenceko biaduktua (13): debekatuta dago trafikoa 3,5 tonatik gorako BGM duten ibilgailuentzat eta salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat.
- J507-L2 (13): gas natural likidotua (GNL) erregai gisa erabili eta salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek debekatuta dute trafikoa.
- A55 Cap Pinède/Vieux Port loturarekin (13)
- A50 Le Penne-sur-Huveaune/Marseillarekin (13)
- A7 Septème-les-Vallons/Marsellarekin (13)
- A50/A57 Toulongo tunelarekin (83)
- A8 Antibesko bidesariarekin (06)/Italia
- N85 Aspres-les-Corps/Gap-ekin (05)
- N94 – Enbrun Montgenèvre pasabidearekin (05)
- N100/N580 Avignonekin (84)
- N7 Orangerekin (84)

Hego-ekialdea

- A7/A6 Ternay/Limonestekin (69): debekatuta dute zirkulazioa 7,5 tona BGM baino gehiagoko ibilgailuek, Ternayko (A-47) eta Limonesteko lotuneen artean, A-450 eta Boulevard Urbain Sud lotuneen arteko A7aren tartean izan ezik. Halaber, debekatuta dago Fourviereko tuneletik pasatzea 4,30 metrotik gorako altuerako ibilgailuentzat, eta baita salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat ere.
- Lyongo BPNL-Boulevard Périphérique Nord (69): debekatuta dute ibiltzea 19 tonatik gorako eta 4,50 metrotik gorako altuerako ibilgailuek, eta baita salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek ere.
- N7-Vienne/Roussilloneko ordainlekua (38): Viennetik Roussillongo ordainlekura bitartean, iparraldetik/hegoalderako noranzkoan, debekatuta dago trafikoa 3,5 tonatik gorako ibilgailuentzat; Roussillongo ordainlekuaren zeharbidean ere debekatuta dute salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek.
- N85- Laffreyko jaitsiera (38): beheranzko noranzkoan, debekatuta dago zirkulazioa 7,5 tona BGM baino gehiagoko ibilgailuentzat eta garraio publikoan dabiltzan ibilgailuentzat.
- N205 Montblanceko túnel inguruan (74): Montblanceko tunelaren zeharkaldia debekatuta dago 3,5 tonatik gorako BGM duten ibilgailuentzat, 4,7 metrotik gorako altuera dutenentzat eta salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat, bai eta Euro 0, 1 edo 2 duten ibilgailuentzat ere.
- N543 Fréjus túnel inguruan (73): Fréjus tunelaren zeharkaldia debekatuta dago 3,5 tonatik gorako BGM duten ibilgailuentzat, 4,3 metrotik gorako altuera dutenentzat eta Euro 0, 1 edo 2 duten ibilgailuentzat. Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek elkarrekin (konboian) zirkulatzeko baimena dute.

Debekuak Frantzia-Espainia mugan

Euskal Autonomia Erkidegoan, iparraldera noranzkoan, igandeetan eta jaiegunetan, 7,5 tonatik gorako ibilgailu astunen zirkulazioa baimenduta dago zirkulazio-korridore handietan, bereziki A-8 eta N-1 norabideetan, Biriatuko muga igaro ondoren.

Katalunian, Gironako probintzian, 7,5 tona BGM baino gehiagoko ibilgailu astunek debekatuta dute AP7/E15 autobidean iparralderantz joatea (Agullana eta Perthus artean) frantziar zirkulazio-debekuen egutegiko jaiegun batzuetan.

Salbuespenezko garraioetarako eta gai arriskutsuen garraiorako zirkulazio-murrizketei buruzko informazio zehatza, eta EAEko lurraldean ibilgailu astunen 7,5 tona baino gehiagoko zirkulazio-murrizketa puntualak eskuragarri daude Trafiko Zuzendaritzaren web orrian: www-org.dgt.es/es/el-traffic/restricciones/ eta Euskal Autonomia Erkidegoko Trafiko Zuzendaritzaren web orrian:

[www.trafikoa.euskadi.eus/lfr/web/Trafikoa /](http://www.trafikoa.euskadi.eus/lfr/web/Trafikoa/)

Kataluniako mugan trafikoa murrizteko: www.gencat.cat/transit/mesures.htm

Informazio honek aldaketa puntualak izan ditzake, gerta daiteke, ibilgailu astunei aldi baterako murrizketak jartzea eta beste. Horregatik ATFRI (Association Française du Transport Routier International) elkartearen web gunea begiratu daiteke informazio zehatzagoa jasotzeko eta aldaketak ikusteko, <https://www.aftri.com/aftri>